



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 18a

30. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu dute (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, natur parkeen kudeaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua gaitzesten da bere lege-betebeharrak ez dituelako bete Nafarroan Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez, eta erregelamendu hori onetsi dezan premiatzen da. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Erregistroen Erreforma Integralerako lege aurreproiektua erretira dezan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berriki ditzan Nafarroako III. Teknologia Planaren emaitzak, azter ditzan berrikuntzaren arloko ahuleziak eta ateratako ondorioak isla ditzan IV. Teknologia Planaren edukian. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Espainiako Errege Akademiarekiko konpromiso ofizialak. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten du Osasuneko kontseilariaren kudeatze-lana. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Nafarroako Gobernuaren eta bere lehendakariaren jarduna. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoan dauden espazio-beharrizanei erantzute aldera Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen iragan otsailaren 26an Tuterako eta Iruñeko klaustroei buruz onetsitako mozioa betetzeko, Román Felones Morrás jaunak egina (14. or.).
- Galdera, zorpetze berria formalizatzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Osoko Bilkurak onetsitako mozio bat betetzeko, “Barañaingo Auditorioa” fundazioaren bideragarritasuna ziurtatzeko zenbait neurri har ditzan premia-tzen duena, Román Felones Morrás jaunak egina (15. or.).
- Galdera, IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (16. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.**

**AKATS ZUZENKETA**

Akats bat aurkitu da Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Legean, zeina Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean 2013ko otsailaren 27an argitaratu baitzen, 23. zenbakian. Horrenbestez, zuzenketa hauek egiten dira:

6/2006 Foru Legeko 183. artikulua aldatzen duen 31. artikuluan –21. orrialdeko eskuineko zutabea–, 183. artikuluko 1. idatz-zatian, hau jar-tzen du: “.. Administrazioak proiektuen lehiaketa erabiliko du, ...” Aldiz, hau esan behar du: “.. Admi-

nistrazioak, ahal dela, proiektuen lehiaketa erabili-ko du, ...”

27. orrialdeko ezkerreko zutabea, 45. artikulua kendu behar da, 6/2006 Foru Legeari hamabosgarren xedapen gehigarria eransten diona, xedapen horren edukia sartuta baitago aipatutako foru legearen 97. artikuluko duen testu berrian, 5. eta 6. idatz-zatietan hain zuzen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena, Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea onetsi zenetik –hartan, barrutien zaintza sistema ezarri beharra jaso zen–, auzi horrek etengabeko eztabaida eta gatazka eragin du ehiztarien elkarteen, barrutien kudeatzaileen, toki entitateen eta basozainen elkarteen artean. Nafarroako Gobernuak erabaki du moratoria bat ezartzea horren aplikazioan urte hauetan guztie-

tan, harik eta 2013ko otsailean barrutien zaintza sistema ezarri beharra indarrean sartu den arte.

Barrutien zaintzaren derrigorrezkotasuna eta horrek bete beharreko eskumenak edo eginkizunak ezartzeko moduak ez dauka zerikusi zuzenik ehiza-jardueraren errealitate anitzarekin eta gure erkidegoan dauden barrutien tipologiarekin. Horrek gatazkak sortu ditu, bai eta legea bere horretan osoki betearazteko ezintasuna ere.

Hilabeteotan, alderdi interesdun guztiak hartu ditugu Parlamentuan, eta fauna babesteko eta inplikaturako gizarte-sektore guztientzako irtenbiderik mesedegarriena bilatzeko konpromisoa hartu dugu. Baina, halakorik gertatu gabe, Departamentuak moratoria horren amaiera ezarri du, eta horrenbestez uste dugu beharrezkoa dela foru lege proposamen hau izapidetzea.

**Artikulu bakarra.**

Ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean xedapen iragankor berri bat gehituko da, ondoko edukiarekin:

“Ehiza barrutien zaintza sistema bat ezartzea, zeina legearen 51. artikuluan jasotzen baita, borondatezkoa izanen da 2016ko martxoaren 31ra arte.

Foru lege honetako artikuluetan barrutien jabe-ei eta kudeatzaileei ezarritako betebeharre aurre egin ahal izate aldera, Nafarroako Gobernuak, kasuko eskumena duen departamentuaren bitartez, finantzaketa hitzarmenak sustatuko ditu barrutien jabe diren toki entitateekin, zaintza sistema hori ezartzeko.

Nafarroako Gobernuaren esku uzten da kasuko eskumena duen departamentuaren bitartez akordio orokor bat lor dezan, 2014ko ekainaren 30erako, alderdi interesdun guztiekin, halako moduan non Ehizari buruzko Foru Legea behin betikoz sar dadin indarrean osorik eta ehiza jarduera arautzeko eginkizuna bete dezan, espezieak eta ingurumena babestuz.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, natur parkeen kudeaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.**

*VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkezturiko jabeldura, natur parkeen kudeaketaren gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **JABELDURAREN TESTUA**

Víctor Rubio Martínezek, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 183. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroak Naturgune Babestuen Sare zabala du, ondokoek osatua: erreserba integralak, natur erreserbak, lekune naturalak, aisiarako natur eremuak, HBBak, basa fauna babesteko eremuak eta natur parkeak. Natur parkeak dira (Bertizko Jaureria, Urbasa-Andia eta Errege Bardea), hain zuzen ere, babes maila handiena dutenak.

Parke Naturalak gizakien ustiapenen edo bizi-tokien eragin txikia jaso duten eremu naturalak dira, haien paisaien edertasuna, ekosistemen garrantzia edo floraren, faunaren edo eraketa geomorfologikoen berezitasuna direla kausa, ekologia, estetika, hezkuntza eta zientzia arloetan lehentasunez kontserbatu behar diren baloreak biltzen dituztenak.

Parke Naturalak deklaratzeko hurrengo xedeak ditu:

1. Naturgunearen balio natural bereziak zaindu eta babestea.

2. Natur baliabideak, oihan, abeltzaintza, ehiza eta bestelako aldeetan ordenatuki eta behar bezala erabiltzea, aipatu baliabideak berriztatuko direla bermatuz.

3. Herri ondasunak administratzen dituzten tradiziozko elkarteek Nafarroako mendi eta basoak kudeatzeari eustea eta bultzatzea, edonola ere, gizarte interesari edo publikoari lehentasuna emanez norbanakoen gainetik.

4. Natura zientziaren aldetik eta heziketaren aldetik ezagutzea sustatzea eta baita hori babestu beharra ere. Orobat lehengo eta oraingo belaunaldiak naturaren inguruan sustatu eta garatu dituzten tradizio, usadio eta balioak.

5. Parke Naturalaren barruan edo inguruan diren biztanleguneen sustapen sozioekonomikoari laguntzea, Parke Naturalaren kontserbazioarekin batera daitekeen neurrian.

6. Aisialdi eta turismo jardueren kontrola eta antolamendua, horiek elementu naturalak eta basa fauna eta florako espezieak babestu eta iraunaraztearen menpe jarritz.

Horregatik guztiagatik, talde honek jabeldura hau aurrekiz dio Nafarroako Gobernuari, gure erkidegoko natur parkeen kudeaketa dela-eta, bai eta legediak xede horrekin ezartzen dituen organoetako parte-hartze soziala dela-eta, jarraituko duen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua gaitzesten da bere lege-betebeharrak ez dituelako bete Nafarroan Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez, eta erregelamendu hori onets dezan premiatzen da.**

**ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua gaitzesten baita bere lege-betebeharrak ez dituelako bete Nafarroan Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez, eta erregelamendu hori onets dezan premiatzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Orain dela gutxi, parlamentu-talde honek informazio eskaera bat aurkeztu zuen, hitzez hitz hauxe zioena:

- “Departamentuak egin beharreko erregelamenduzko garapena, erabat aplikatze aldera Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legea, Parlamentu honek onetsia.

- Garatutako edukiak jasotzen dituzten foru aginduak edo foru dekretuak, baldin eta halakorik badago.”

Hona erantzuna, hitzez hitz:

“Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren informazioa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak eskatutakoari erantzute aldera:

- Salmenta zuzena arautzen duen 8/2010 Foru Legea onetsi zen nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeien errentak hobetzeko tresna bat izan zedin. Legearen artikuluetan ez dago sustapenari, babesari edo bultzatzeari lotutako jarraibiderik, araubidea ezartzera mugatzen baita.

- Bestalde, Europako erregelamenduek geroago ezarri dute elikagaien erregistroei, trazabilitateari eta segurtasunari buruzko araudia; hortaz, araudi horri egokitu beharra dago.

- Departamentu honek foru agindu bat eman zuen legea garatzeko, eta hori ere zaharkituta gelditu da.

- Bestalde, Europar Batasuneko Batzordean jorratzen ari den figura bat da honako hau, Europa guztian modu harmonizatuan garatzeko.

- Bestalde, Ministroen Kontseiluak orain dela gutxi onetsi du Elikagaien katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko Lege Proiektua, zeinak salmenta zuzenari zalantzarik gabe eraginen baitio.

- Halaber, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak adierazi du berriro ere aurkeztutako duela Elikagaien Kateari buruzko Legearen aurreproiektua, erretiratua izan baitzen lehenago.

Hortaz, gure iritziz, egoki da Departamentuaren barruan darabilgun Elikaduraren Kalitateari buruzko Foru Legearen zirriborroa egokitzea, Ministerioaren eta Europar Batasunaren proposamenekin koordinatuta, Nafarroako produktuen berezitasuna eta kalitatea bultzatzeko helburuari argi eta garbi eutsiz, elikagaien katearen katebegi-arte arazoak erlazioa erraztearren eta gure produktuen salmenta zuzena arautuz eta sustatuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoa betez.”

Argi dago, beraz, foru lege hori onetsi zenez geroztik ia hiru urte iragan diren arren Nafarroako Gobernuak ez duela prozedura bakar bat ere abiarazi legea erregelamendu bidez garatzearen, lege hori indarrean sartu ahal izan dadin eta gure lehen sektorea garatzeko, dibertsifikatzeko eta hobetzeko tresna bat izan dadin; horrela, bada, Parlamentu honen aurrean dituen legezko betebeharreri muzin egin die. Hori dela-eta aurkeztu du parlamentu-talde honek ondoko

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jokabidea gaitzesten du, ez duelako bete legez dagokion betebeharra, Nafarroan nekazari-

tzako eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du gehienez ere bi hilabeteko epean onetsi dezan erregelamenduzko garapen osoa, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legea eraginkortasun osoz indarrean jartzeko.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuarekin premiatzen da Erregistroen Erreforma Integralerako lege aurreproiektua erretira dezan.**

### *BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuarekin premiatzen baita Erregistroen Erreforma Integralerako lege aurreproiektua erretira dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Parlamentuko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Espainiako Gobernuak erregistro-sistemaren eredia aldatu nahi du Estatu osoarentzat, Erregistroen Erreforma Integralari buruzko Lege aurreproiektuan jasotako eredu berriaren bidez. Aldaketa

horrek berekin dakar kokka bat gehiago estutzea Alderdi Popularraren zerbitzu publikoak pribatizatzeko ahalegina.

Espainiako Gobernuak proposatutako eredu-aldaketak, zeina aurreproiektu horretan jasotzen baita, Erregistro Zibil orori buruzko eskumena kentzen die 20/2011 Legean ezarritako erregistro-bulegoei; horietan, funtzionario publikoak egon behar ziren, eta haien jardunak, printzipioz, ez zuten inolako kosturik ekarriko herritarrentzat. Aurreproiektu horren zirriborroak erregistratzaile eta notarioen korporazioei ematen die eskumen hori, halako moduan non herritarrei kobratzen hasiko diren erregistro zibileko eguneroko jarduketak egiteagatik.

Espainiako Gobernuak ezarritako ildo horretan, apustua egiten jarraitzen da zerbitzu publikoak pribatizatzearen alde eta gure gizarteko beheko mailetakoa herritarrei zerbitzu publikoak eskuratzeko mugak jartzearen alde, justiziara jo ahal izateko tasak ezartzearekin ikusi ahal izan dugun bezala.

Horregatik guztiagatik, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du sistema judizialaren pribatizazio mota ororen aurka dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuarekin premiatzen du Erregistroen Erreforma Integralari buruzko Legearen aurreproiektua erreti-

ra dezan, berdintasunezko justizia unibertsalaren arloan atzera egitea dakarrelako.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernari eta Justiziako ministro Alberto Ruiz Gallardón jaunari igorriko die mozio hau.

Iruñean, 2013ko martxoaren 4an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus ditzan Nafarroako III. Teknologia Planaren emaitzak, azter ditzan berrikuntzaren arloko ahuleziak eta ateratako ondorioak isla ditzan IV. Teknologia Planaren edukian.**

### *PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berrikus ditzan Nafarroako III. Teknologia Planaren emaitzak, azter ditzan berrikuntzaren arloko ahuleziak eta ateratako ondorioak isla ditzan IV. Teknologia Planaren edukian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko otsailaren 28ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Nafarroako III. Plan Teknologikoaren indarraldia 2011n amaitu zen. IV. Plan Teknologikoa 2012ko apiriletik iragarri bazaigu ere, oraindik ez

da argitaratu, eta hari dagokionez informazio lu-soak eta lortu nahi diren helburuei buruzko zenbait datu besterik ez ditugu ezagutzen.

III. Planaren helburuak ziren, besteak beste, BPGaren % 3ra iristea ahalegin teknologikoaren arloan eta Nafarroa 50 eskualde berritzaileen artean kokatzea. Helburu horietako bat ere ez da bete: I+G+Bra bideratutako gastuak BPGaren % 2,05 egin zuen 2011n, eta Nafarroa 73. postuan agertzen da Regional Innovation Scoreboard deiturikoan. Egia da krisia izan daitekeela, hein batean behintzat, emaitza horren azalpena, baina, hain zuzen, egoera horietan izaten da beharrezkoa ahalegin handiagoa egitea, eta, dirudenez, kontrakoa gertatzen ari da. Horrekin lotuta, deigarria da Nafarroak errenta mailari dagokionez betetzen duen postuaren (38.a 2009an; horretan ere atzera egin da) eta berrikuntzari dagokionaren arteko aldea, eta horrek adieraz dezake ahalegin teknologikoa txikiagoa izan dela beharrezkoa zena eta errenta-maila bertsua duten Europako herrialdeek egiten dutena baino, finean herrialde horiekin alderatu behar baitugu gure egoera.

Europar Batasunaren arabera, berrikuntzarekin zerikusia duten aldagaiak dira lanaren produktibitatea, patenteen sorkuntza, ezagutzako jardueraren intentsiboetako enplegua, enpresa dinamiko eta berritzaileak enpresen ehunduran duten pisua, edota berrikuntzarekin zerikusia duten ondasunek edo eduki teknologiko handiena dutenek merkataritza-balantzan duten pisua. Triunfalismo antzuak alde batera utzita, etorkizuna ez da oso itxaropentsua. Hala, lanaren produktibitatea ez zen areagotu ekonomia-hedapenaren urteetan, soilik azken



garaiotan baizik, enpleguaren murrizketa jarduerarena baino handiagoa izan baita. Bestalde, ezagutzako zerbitzu intentsiboen sektoreak duen pisua txikia da. Hortaz, bidezkoa da galdetzea Nafarroako ehundura sozioekonomikoak zenbateko gaitasuna duen berrikuntza barneratzeko, bai teknologikoa bai teknologikoa ez dena (eta, horren barruan, antolamenduzkoa), hori ere garrantzitsua baita. Berrikuntzak sortzea bezain garrantzitsua da horiek xurgatzea, eta hori gizarte fenomeno bat da, zerikusia duena hezkuntza-sistemarekin, Lanbide Heziketa ehundura produktiboan sartzearekin edo prestazio sozialen sistema bezalako elementuekin. Eskura ditugun datuak bat datoz muntaia soilean oinarritutako produkzio-eredu bateranzko deriba batekin, zeinak Nafarroako ekonomia azken muntaiarako lantegi izugarri baten gisan taxutu ahal baitu, bai eta langile kualifikatuenean laneratzeko aukerei dagokienez detektaturiko gabeziekin ere; izan ere, langile horiek, gero eta sarriago, ez dute emigratzea beste irtenbiderik, horrek dakarren kostu sozial izugarriarekin.

Gauzak horrela, esan bezala, I+G+Ban egiten den ahalegina areagotu egin beharko litzateke, murriztu ordez. Hala ere, IV. Plan Teknologikorako proposamenetik ezagutzen ditugun datuek adierazten dutenez, anbizioa eta baliabideak murriztu egin dira arlo horretan. I+G+Bari buruzko helburua da % 2,35era iristea 2015ean, eta Nafarroa Europar Batasuneko 60 erregio berritzaileen artean egotea (III. Planean, % 3 eta 50. postuan). Aurreikusita dago 170 milioi euro bideratzea planera; aurrekoan, berriz, 228 milioi jarri ziren.

Eta hori guztia, berriro diogu, testuinguru kezagarri batean, non unibertsitateek I+Garen arloan egiten duten jarduna nabarmen murriztu baita, guztiaren laurden bat inguru egiten duenean. Gogoratu behar da Nafarroako Unibertsitate Publikoa dela, bere tamaina kontuan hartuta, jarduera horietarako kanpoko baliabide gehien jasotzen dituzten unibertsitate publikoetako bat. Halaber, proposatzen den zentro teknologikoen berregituraketak alderdi oso eztabaidagarriak ditu; izan ere, ez ditu kontuan hartzen berrikuntzak sortzeko prozesuaren berariazko ezaugarri batzuk.

Are gehiago, arrisku-kapitalaren bidez berrikuntzaren sustapenerako politikan ezinbestekoa den tresna bat, zeina Sodena baita, sasiko helburuetarako erabili da (Iberdrolako akzioak erosi eta edukitzeko), eta horrek bere emaitzak oztopatu eta maniobratzeko ahalmena nabarmen murrizten du. Eta CEIN, hori ere ezinbestekoa politika horretarako, giza-kapitalaren galera ekarriko duen eta azken emaitza zalantzazkoa duen berregituratze baten menpe dago:

Mozio honen jatorrian dagoen jabelduraren eztabaidan ez zen berritasun nabarmenik atzeman, baina bai, aldiz, egindakoaren analisi zehatzen falta eta azterketa sakona beharko luketen proposamenean jarraipena.

Esan dugun moduan, IV. Planaren prestaketa oraindik amaitu ez denez, une egokia izan daiteke alderdi hauei buruzko gogoeta egiteko eta, kasu bada, bai aplikatu beharreko politiken eskema bai aurrekontuzko eta antolamenduzko ahalegina berraztertzeke.

Hori guztia dela eta, Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

1. Nafarroako III. Plan Teknologikoaren berrikusketa sakona egin dezan eta azter ditzan Nafarroak zer ahulezia dituen berrikuntzari eta hura ehundura sozioekonomikoan sartzeari dagokienez, eta ateratako ondorioak IV. Plan Teknologikoan isla ditzan.

2. I+G+B delakoan egiten den aurrekontu-ahalegina areagotzea, III. Plan Teknologikoan aurreikusitako mailatik abiatuta, eta maila hori pixkanaka areagotzea, termino errealean, IV. Plana amaitu bitartean. Bereziki:

- Berrikuntza-politiken ikuspegi soziala eta ingurumenekoa indartzea, bereziki kontuan hartuta bilakaera sozioekonomikoak ziurrenik ekarriko dituen aukerak mendekotasunaren gisako alorretan.

- I+G+Baren arloan, enpresarteko elkarlana sustatzera eta indartzera bideraturiko neurri zehatzak ezartzea.

- Unibertsitateko, eta bereziki Nafarroako Unibertsitate Publikoko I+G+Ba finantzatzeko aurrekontuetako kontusailak handitzea.

- Ahalegina egitea Lanbide Heziketa Zientzia-Teknologia-Industria sistemaren egiazki integratzen, bai eta diziplinarteko elkarlana bultzatzea, bereziki diziplina teknikoaren eta giza- eta gizarte-diziplinen artekoa.

- Nafarroako Foru Komunitatearen menpeko zentro teknologikoetan lehentasuna ematea masa kritikoa areagotzeko, ikertzeko aukerak eta horretarako ekipamenduak handituz, eta ez administrazio-kontzentrazioaren bidetik.

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bete ditzan Espainiako Errege Akademiarekiko konpromiso ofizialak.**

### *AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bete ditzan Espainiako Errege Akademiarekiko konpromiso ofizialak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak "Espainiako Errege Akademiarekiko konpromiso ekonomikoak betetzeari buruzko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

1993ko urriaren 20an, "Fundación Pro Real Academia Española" izeneko eratu zen Zarzuelako jauregian egindako ekitaldi batean, Espainiako Errege-erreginak ekitaldiaren buru zirela.

Fundazio hori irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, eta xede nagusi du Espainiako Errege Akademiaren jarduna bultzatzea, Espainiako gizarteak herritarren, erakundeen eta entitate pribatuen bitartez eman dezakeen laguntza dela medio.

Nafarroak fundazioarekin eta Errege Akademiarekin daukan konpromisoa ofizialki jaso zen

Nafarroako Gobernuak, kide fundatzaile den aldetik, fundazioa eratzeko agiri notariala sinatu zuenean. Konpromiso hori Errege-erreginen, gainontzeko autonomia erkidegoen eta Espainiako finantza- nahiz industria-enpresa nagusietako ordezkarien aurrean hartu zen.

"Fundación Pro Real Academia Española" izenekoaren patronatuak 1998ko azaroaren 10ean egindako bileran erabaki zen, Espainiako erregio guztiak bertan zirela, erkidego bakoitzaren urteko ekarpena 30.000 eurokoa izatea.

Nafarroako Gobernuak azken aldiz 2005eko ekainean egin zuen akordio horretatik heldu den ekarpena.

Foru Komunitateak lotura handia du gaztelaniarekin, literaturari eta historiari dagokienez. Nafar bat izan zen, hain zuzen ere, Espainiako Errege Akademiaren fundatzailea eta lehen zuzendaria: Juan Manuel Fernández Pacheco, Martzillan, 1650ean jaioa.

2013an, Espainiako Errege Akademia sortu zeneko 300. urteurrena ospatuko da.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

**1.** Espainiako Errege Akademiarekin hartutako konpromiso ofizialak bete ditzan.

**2.** Espainiako Errege Akademiari eta bere fundazioari urtero ordain diezaien ekarpen ekonomikoa.

**3.** Espainiako Errege Akademiarekiko eta Martzillako Udalarekiko hitzarmen bat bultzatzea, azterlan bat egite aldera Juan Manuel Fernández Pacheco nafarrari buruz, Espainiako Errege Akademiaren fundatzailea izan baitzen.

**4.** Azterlan hori argitalpen baten edo erakusketan baten bidez ezagutaraz dezan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten du Osasuneko kontseilariaren kudeatze-lana.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten baitu Osasuneko kontseilariaren kudeatze-lana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Osasun sistema publikoak berme bat izan behar du pertsonen osasuna behar bezala zaintzeko. Osasun-sistema publiko on batek –zehazki, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak– osasun-laguntza hoberena, unibertsala eta doakoa, zergen bidez finantzatua, bermatu beharko luke. Osasun-sistema publiko bat ona da baldin eta herritar guztientzat ezartzen eta koordinatzen baditu, bazterketarik gabe, osasun ekintza prebentibo, sendagarri eta aringarriak. Halere, nafarrak eskubideak galtzen ari dira pixkana-pixkana beren osasunaren zaintzari dagokionez, eta gero eta zailtasun gehiago dituzte, sektore batzuek besteek baino gehiago, osasun-laguntza jasotzeko.

Osasuneko kontseilari Vera andreak osasun arloko erantzukizuna bere gain hartu zuenez geroztik, murrizketa neurrigabeak, osasun-zerbitzuen privatizazioa eta berrantolamendua eta munta handiko erabakiak elkarrizketa sozialik gabe hartzea gogor eta etenik gabe ari dira erasotzen gure osasun-sistema publikoa.

Jakin badakigu osasun arloko profesional gehienek bere ahalegin eta dedikazio guztia jarri eta jartzen dutela osasun-laguntzaren kalitatea mantentzeko, eta zuzeneko zerbitzuak kalitate handikoa izaten jarraitzen du, baina itxarote-zerrendak handitzen ari dira eta enpresa pribatuen esku uzten ari diren zenbait zerbitzu okerrera egiten ari dira.

Osasun Departamentua tematu zen osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoaren erreforma aurrera ateratzen, nahiz eta erreforma horren aurka azaldu zitzaizkion profesionalak, udal ordezkariak (bereziki, landa eremukoak) eta ordezkari sindikalak nahiz zenbait kolektibo sozialetakoak. Izan ere, ez da egon erreforma horren alde azaldu den kolektibo bakar bat ere. Parlamentuak geldiarazi behar izan zuen erreforma hori.

Osasun Departamentua prestutasunez eta azkar tematu zen privatizatzen ospitaleguneko sukaldeak, zeinek elikadura-zerbitzu bikaina ematen baitzuten; lanik gabe utzi zituen zerbitzu horretan urteak zeramatzaten 109 langile eta izugarri okertu zen janariaren kalitatea eta dietak zehazteko eta prestatzeko koordinazioa. Gainera, enpresa adjudikazio-hartzailearen zerbitzuko langileen lanbaldintzak okerragoak dira. Argi zegoen eta argi dago kudeaketa pribatuak, zeinak etekina atera behar baitio bere jarduerari, ezin duela eskaini kudeaketa publikoak ematen duen zerbitzu bera, kudeaketa publikoak ez baitu etekin ekonomikoa bilatzen, baizik eta soil-soilik zerbitzuaren kalitatea. Beste behin ere, Osasun Departamentuak privatizatzeari ekin dio, kontuan hartu gabe arbuio soziala, eta privatizazio hori justifikatzen duen azterlan zientifiko bat egin gabe.

Osasun Departamentuak lan osasunaren eta osasun publikoaren erakundeak bateratu zituen, eta horren emaitza izan da prestigio aitortuko bi entitateren arteko bat-egite ez integratua, halako moduan non arauak berak etorkizuneko sinergiak aipatzen dituen. Alegia, berrantolamenduaren helburuak ziren arreta hobetzea eta eginkizunen bikoizketa ekidinez aurrezte, baina ez da halakorik gertatu.

Osasun Departamentuak peonadak kendu zituen, alternatibarik eman gabe itxarote-zerrendak gutxitzeko eta osasun arloan erantzun azkarrago bat emateko. Osasun arloko baliabideak gutxitu dira; legegintzaldi honetan, adibidez, mila

langile baino gehiago gutxitu dira plantillak. Kirofano berriak irekitzeko atzerapen handia egon da, San Juan de Dios klinikan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileek egiten zuten jarduera kirurgikoak murrizketa drastikoa izan du, erretiroa hartutako lanpostuak ez dira betetzen, ordezkapenak ez dira egiten, eta abar. Murrizketa horiek guztiek eragin dute itzarotzerrendak modu kezkarriaren igotzea, bai kirurgikoak, bai lehen kontsultakoak eta azterketak.

Osasun Departamentuak mugatu egin ditu egoera irregularrean dauden herritarrei osasunlaguntza emateko baldintzak, nahasmena eta beldurra eraginez pertsona horiengan, larrialdiko laguntzako behin-behineko fakturak jasotzen baitituzte.

Osasun Departamentuak nagusikeriaz jokatu du, ukitutako kolektiboen parte-hartzeari muzin eginez erabakiak hartzerakoan eta entzungor eginez, sarritan, kritikei eta hobetzeko proposamenei. Saihestu egin ditu negoziazio kolektiboko prozesuak eta beren erreformek ukitutako zerbitzuetako profesionalen parte hartzeko prozesuak.

Osasun Departamentuak, osasun-prestazioen kalitatea mantentzen eta hobetzen laguntzen ez duten beste jarduketak batzuen artean, aldatu egin du odola emateari eta ehunak eta organoak kontserbatzeari eta inplantatzeari buruzko araudia, orain dela gutxi estatuak aginduzko izaeraz araututakoa araubide horretatik kanpoan utziz organoak dagokienez. Ospitaleen arteko garraioaren finan-

tzaketa kendu nahi izan du; izan ere, kendu egin du Lizarrako García Orcoyen Ospitalean zegoena, eta mantendu egin du Tuterako Reina Sofia Ospitalekoa, bertako herritarren presioaren ondorioz, zeinek Osasun Departamentuaren proposamen eta adierazpen aldakorrak pairatu baitituzte. Nafarroako Ospitaleguneko laborategiak birzentralizatzeko prozesuan omen daude, ukitutako langileei informaziorik eman gabe.

Osasun Departamentuaren aurrekontuan egingdako murrizketak oso drastikoak dira. Kontuen Ganberak, Nafarroako 2011ko kontu orokorre buruzko txostenean –2012ko abenduan aurkeztu zen– jada adierazi zuen osasun arloan biztanle bakoitzeko urtean egindako batez besteko gastua jaitsi dela, 1.612 €-tik 1.469 €-ra hain zuzen ere. Gastua eta inbertsioa murrizten jarraitzen dute oraindik, eta horrek Europako herrialdeen artean azken tokietan jartzen gaitu. Nafarroako osasun sistema publikoko inbertsioa eta finantzaketa murriztea ekartzen ari da, eta inondik ere ekarriko du, herritarrei emandako zerbitzua okerragotzea.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak politikoki gaitzesten du Osasuneko kontseilari Marta Vera Janín andrearen kudeaketa, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuan dituen eginkizunei dagokienez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Nafarroako Gobernuaren eta bere lehendakariaren jarduna.**

### ***ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA***

2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Nafarroako Gobernuak eta bere lehendakari Yolanda

Barcina andrearen Nafarroako Kutxan egin duten kudeaketa, eta horregatik adierazten du beharrezkoa dela dimisioa aurkez dezan.”

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoan dauden espazio-beharrizanei erantzute aldera Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo ikastetxe publikoan dauden espazio-beharrizanei erantzute aldera Hezkuntza Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari José Iribas jaunak Parlamentu honetako Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Sarrigurengo ikastetxe publikoko 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulari buruzko datuak eza-gutu ostean, hauxe jakin nahi dut:

Hezkuntza Departamentuak zer neurri abiara-ziko ditu ikastetxearen espazio-beharrizanei erantzuteko? Zein izanen da neurri horiek garatzeko egutegia?

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen iragan otsailaren 26an Tuterako eta Iruñeko klaustroei buruz onetsitako mozioa betetzeko.**

*ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen iragan otsailaren 26an Tuterako eta Iruñeko klaustroei buruz onetsitako mozioa betetzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordeak Tuterako eta Iruñeko klaustroei buruzko mozio bat onetsi zuen otsailaren 26an. Mozioak lau puntu ditu. Lehendabiziko hiru puntuak aho batez onetsi ziren, eta laugarrena, gehiengo.

Horien edukia ikusita, hauxe jakin nahi dut:

• Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik mozioaren lehen puntuan onetsitakoa betetzeko? Adieraz bedi Iruñeko klaustroko obrak zein datatan hasiko diren gutxi gorabehera.

• Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik mozioaren bigarren puntuan onetsitakoa betetzeko?

• Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik mozioaren hirugarren puntuan onetsitakoa betetzeko? Hasi al ditu Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietako agintariekiko negoziazioak? Zer kolektibo ditu gogoan?

Iruñean, 2013ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, zorpetze berria formalizatzeari buruzkoa.**

*MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, zorpetze berria formalizatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean ahoz erantzuteko.

2013an zehar, Nafarroako Gobernuak aurre egin beharko die zorraren amortizaziotik heldu diren betebeharrei. Horretarako, eta % 0,7ko defizit baimendua finantzatzeko, Gobernuak berriz ere jo beharko du zorpetzera.

Hona galdera:

• Gobernuak noiz eta nola aurreikusten du formalizatuko duela aurreikusitako zorpetze berria?

Zenbat formalizatu da gaur arte, eta zenbat falta da formalizatzeko?

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Osoko Bilkurak onetsitako mozio bat betetzeko, “Barañaingo Auditorioa” fundazioaren bideragarritasuna ziurtatzeko zenbait neurri har ditzan premiatzen duena.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Osoko Bilkurak onetsitako mozio bat betetzeko, “Barañaingo Auditorioa” fundazioaren bideragarritasuna ziurtatzeko zenbait neurri har ditzan premiatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordeak mozio bat onetsi zuen otsailaren 26an, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen zenbait neurri har ditzan

“Barañaingo Auditorioa” fundazioaren bideragarritasuna ziurtatzeko. Mozio horrek lau puntu zituen. Lehenengoa gehiengoz onetsi zen, eta beste hiru puntuak, berriz, aho batez.

Horien edukia ikusita, hauxe jakin nahi dut:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik mozioko 1. puntuko edukia betetzeko eta, horrenbestez, Barañaingo Auditorioa eszena-eremu berezi bat dela berresteko eta bere aurrekontu-plangintza egoera horretara egokitzeko?

- Aurreikusitako bi aukeretako zeinen alde dago departamentua, abian diren deialdietako oinarriak aldatzearen alde ala beste bat egitearen alde?

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Barañaingo Auditorioaren eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren arteko urte anitzeko hitzarmen bat bultzatzeko?

- “Eszena” programaz gain, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik departamentutik bertatik sortutako beste programa batzuetako jarduerak sartzeko?

- Nafarroako Gobernuak egin al du inolako zuzemenik, Barañaingo Auditorioarekin batera, babes pribatua lortzeko?

Iruñean, 2013ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, IV. Enplegu Planaren luzapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Parlamentu-talde Popularrak jakin du, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamenari UPNk aurkeztutako zuzenketak ikusita, Enplegu Planak berrikuntza nabarmenak izanen dituela:

Zehazki, 9. zuzenketak hauxe dio: "IV. Enplegu Planean (2009-2012), 2013rako luzatutakoan"

Eskuratutako informazioa ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Egia al da IV. Enplegu Plana luzatu dela? Luzatu baldin bada, noiz gertatu da luzapen hori, zer baldintzatan gertatu da eta zer jarduketa egin nahi dira aurreikusitako aurrekontuarekin?

Iruñean, 2013ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba